



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Altzako Udal Bulegoa
San Martzial Plaza z/g. Behe solairua
20017 Donostia
Telefonoa 943352820 / Faxa 943352943
Ordutegia : Astelehenetik ostiralera
9,00etatik 14,00etara

HERRITARREI ARRETA ESKAINTZEKO ZERBITZUA

↳ Biztanleen Errolda

- Ziurtagiriak : erroldatzea, bizikidetza, baja, eta abar.
- Altak: jaiotzak, inmigrazioa edo ez alpatzea.
- Helbidea aldatzea (hiriaren barruan).
- Datu okerrak aldatzea.
- Hautesle erroldako zerrendak eta izandako erreklamazioak (hauteskundeen aurrekoak) jendaurrean jartzea.

↳ Finantzak

- Udaleko ordainagirien kopiak.
- Udaleko ordainagiriak helbideratzea.
- Ondasunen ziurtagiria, edo negatiboak.
- Hobariak bideratzea edo udalaren zergak salbustea.

↳ Erregistroa

- Udalaren edozein departamentura bideratutako eskaerak edo gutunak (obra handiak edo txikiak, jarduera-baimenak, Tao biñetak minusbaliatuentzat, pasabideak, sailkatutako jardueretarako aldaketak, diru-laguntzak igogailua jartzeagatik, lehenengo erabilera, zuinketak edo soka-jartzeak, hesiak jartzea edo zangak egitea, taxiatarako baimenak eta eskualdatzeak, salmenta ibiltariko postuak, bide publikoa okupatzea, bide publikoko jarduerak, ezkontzetan ibilgailuak Alde Zaharrean sartzea, ur-hartuneak edo saneamendua, diru-laguntzak, eta abar).
- Kalteen edo lesioen erreklamazioak.
- Bonobus soziala.
- Fidantza edo abala itzultzea.
- Ez dagozkion diru-sarrerak itzultzea.
- Ordainketak luzatzea eta zatitzea.
- Uraren kontadorearen bajak.
- Elkarteen Udal Erregistroan izena ematea.
- Ofiziozko bajak Biztanleen Erroldan.

↳ Beste zerbitzu batzuk

- Ofiziozko bajak Biztanleen Erroldan.
- Artikutzara joateko baimenak.
- Bizitza-ziurtagiriak herrialde komunitarioetako pentsionistei.
- Alkatetzan ezkontzak hitzartzea.
- Adin txikikoak atzerrira joateko baimena ematen duten gurasoen sinadura egiaztatzea.
- Tele-informatika bidez egindako eskaerak, kexak eta iradokizunak bideratzea.
- Diru-laguntzei buruzko informazioa etxebizitzaren birgaikuntzan.
- NAN eta eta Udalak egindako edo eskatutako dokumentuak konpultsatzea.
- Honakoei buruzko informazioa: bandoak, Ordenantza, udalaren arlo desberdinetako funtzionamendua arautzen duten Arautegiak eta Araudiak.
- Babestutako etxebizitzaren eskatzaileei arreta eskaintzea zozketa garaian (Internet bidez).
- Udalean enplegua eskatzen dutenei arreta eskaintzea oposizio garaian (Internet bidez).
- Udal jarduketako planetan planoak jendaurrean jartzea Altzan.
- Udalkeo programen informazio ematea eta horiek banatzea, edo ez: kultura, kirola, Alkatetza, Gizarte Zerbitzuak, altza.net, Bai Euskarari, autobusetako ordutegiak, hiriko planoak, eta abar.
- Urte amaieran egutegiak banatzea.